



ETXARRI ARANAZKO UDALA  
Kale Nagusia 10 (KP 31820)  
Tef. 948460004  
udala@etxarriaranatz.com  
www.etxarriaranatz.com

# EDIKTUA

## TOKIKO GOBERNU BATZORDEARI ESKUMENAK ESKUORDETZAN EMATEA BALIOGABETZEA

Etxarri Aranazko Alkatetzak, 2015eko otsailaren 16an ebatzi du: (2015/42):

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 21.3 artikulua arlo horretan ematen dizkidan eskumenak erabiliz, kontuan hartuz 2568/1986 Errege Dekretuak onetsitako Toki Entitateen Antolaketari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 43.2, 44, 53.2.3 eta 114. artikuluetan ezarritakoa eta kontuan harturik hurrengo asteetan Tokiko Gobernu Batzordea biltzea ezinezkoa izango dela

Ebatzi dut:

1. Alkateak 2011ko ekainaren 27an Tokiko Gobernu Batzordeari eskuordetzan emandako eskumenak balio gabetzea, zehazten diren alorretan:

a) Lan eskaintza publikoa onestea, osoko bilkuran onetsitako aurrekontuaren eta plantillaren arabera; langileak hautatzeko proben eta lanpostuak betetzeko lehiaketan oinarriak onestea.

b) Planeamendu orokorra garatzeko tresnak onestea, Osoko Bilkurari espresuki esleituak ez badira, baita hirigintza kudeatzekoak eta urbanizazio proiektuak ere.

c) Obren eta zerbitzuen proiektuak onestea, kontratazioa egin edo emateko eskumena duenean eta aurrekontuan sartuta daudenean.

d) Lizentziak ematea, alor horretako legeek Udalbatzari edo Tokiko Gobernu Batzordeari berari ematen ez badiote eskumen hori.

2. Akordio honen berri ematea Udalbatzari, egiten den lehenbiziko ohiko osoko bilkuran.

3. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, ebazpenak sinatu eta hurrengo egunean indarra hartuko badu ere.

Argitara ematen da, orok jakin dezan.

Etxarri Aranatz 2015eko otsailaren 16an.  
Alkatea: Jose Ignacio Bakaikoa Aristorena